
PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Eloko Tejeriako Hilobiaren Memoriagunea

Eloko Tejeriako Hilobiaren Memoriagunea
Elon dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Elo non dagoen ikus dezakezu.

1936ko abuztua eta azaroa bitarten
frankistek hobi honetan
100 pertsona inguru hil zituzten.
1936ko urriaren 21ean
frankistek preso asko
Tafallako kartzelatik atera
eta hobi honetara eraman zituzten bertan hiltzeko.

Pertsona hauek haien pentsatzeko moduagatik,
hainbat partidu politikoetan egoteagatik
edo frankismoaren kontra egoteagatik hil zituzten.

Hobi honetan hil eta lurperatu zituzten pertsonak
herri hauetakoak ziren:

- Agoitz
- Aós
- Berbintzana
- Caparroso
- Kaseda
- Galipentzu
- Murillo el Cuende
- Iruñea
- Azkoien
- San Martin de Unx
- Tafalla
- Esa

1978. urtean senideek
desobiratze goiztiar bat egin zuten
haien maiteen gorpuzkiak berreskuratzeko.
Desobiratze goiztiarrak Nafarroan
1980. urtea baino lehen
egin ziren desobiratzeak dira.

Esteka honetan
Eloko Tejeriako Hilobiaren Memoriagunearen
bideo bat ikus dezakezu.
Klikatu hemen:

https://pazyconvivencia.navarra.es/es/tejeria-de-monreal

Hemen Eloko Tejeriako Hilobiaren Memoriagunearen argazki bat ikus dezakezu:

